

Fikzioaren izterrak

Ur Apalategi

SUSA

186 orrialde

"Azken urteetan euskal literaturak eman duen ipuin liburu onena da, aurtengo gailurretako bat, eta denbora batean nekez irakurriko dut hoberik", zioen Iban Zalduak idazle lapurtarraren lehen ipuin liburu honi buruz. Bikote harremanak eta idazletza aurkituko ditu irakurleak behin eta berriz zazpi narrazio hauetan.



Alex, nire laguna

Mikel eta Maite Gurrutxaga

PAMIELA

32 orrialde

Gurrutxaga anai-arrebek Etxepare Sariaren IV. edizioa irabazi zuten album ilustratu honekin. Ixabel eta Alex ditu protagonistak. Ixabeli ez zaio axola Alex munstro bat izatea, hark entzun egiten baitio eta ulertu egiten baitu. Baina Alexen presentzia lausotuz joango da Ixabelek adiskide berriak egiten dituen heinean.




Ertzeko zatiak

Jon Sarasua

ARGIA URTEKARIAK

257 orrialde

Azken sei urteetan egileak Hego hemisferiora egindako lan bidaia idatzitako testu laburren bilduma da liburu hau: gertakari txikien zatiak, esperientzien kontakizunak eta minigogoetak. Argitaratzeko asmorik gabe sortuak izan ziren hasiera batean baina jendearen erantzunak bultzata liburu batean bildu ditu.




Ipar haizeak

Joseba Aurkenerena

HIRIA

246 orrialde

"Euskal Iparraldeak bizi nahi du, euskaldun izaten jarraitu nahi du. Ez du aisa, frantziar zentralismoaren aldetik jotzen duten haizeen indarra ikusita". Bizirauteari ekiten dion gizarte baten oihartzun apala aurkituko du irakurleak lan honetan, eguneroko kontuak eta sentipenak, Iparraldeko argiak eta ilunak ulertzen laguntzen dutenak.



Aparrezko hitzak

Karlos eta Eider Santisteban

GERO

19 orrialde

Uretan ibiltzea izugarri gustatzen zitzaion Maren izeneko neskatila du protagonista liburu honek. Uda itsasaldean ematen zuen gurasoei batera, hondartza ondoko etxe batean, eta pozarren egoten zen. Marenen abenturak aurkituko ditu irakurleak kontakizun honetan.



Utopiaren itzalak

Asel Luzarraga

TXALAPARTA

185 orrialde

Txilen izan dituen arazo judizialak atzean utzi eta eleberri bat besapean duela itzuli da Asel Luzarraga Euskal Herrira. "Orain arte egin dudana nobelarik ideologiko eta anarkistena da hau", adierazi zuen aurkezpenean. 1992an girotu du nobela eta 80ko hamarkadako ajez eta egungo gizarte eta ekonomia ereduaz gogoeta egin du bertan.



3 Mariak

Arantxa Urretabizkaia

EREIN

192 orrialde

Hiru emakume zahar dira idazle donostiarraren azken eleberriko protagonistak. Laurogei urte inguru dituzte baina ez daude atzera begira, ez daude bizi izandakoari begira; unea bizi-tzen saiatzen dira. "Ez da nik bizi izandakoa, baina bai nik bizi nahiko nukeena zahartzaroan", azaldu zuen aurkezpenean.



Hiri gorritik

Asier Serrano

ELKAR

72 orrialde

Neke batetik sortua omen da eibartarraren azken olerki bilduma hau. Berez, *Erlojugilea* trilogiaren bigarren zatia idazten hasteko asmoa omen zuen baina horretarako indarrik ez eta poesia biluzira jotzea erabaki zuen, "nire lurralde literarioa biltzeko, gogoeta moralen inguruan gordeta nituen ideia batzuk jorratzeko".



Azukre xheea gatz larria

Mikel Hernandez Abaitua

ALBERDANIA

156 orrialde

Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko urteetako kronika sentimentala aurkituko du irakurleak Hernandez Abaituaren lan berrian: literatura, musika, politika..., bizi izandakotik ari da idazlea. Garai hartan Euskal Herria nolakoa zen ulertzeko lagungarri suertatuko zaio saiakera hau.



Euskara batuaren bigarren jaiotza

Xabier Amuriza

LANKU

277 orrialde

"Euskara eguneroko lantresna dutenen artean, diskurtso handiak baino soluzio txiki bat nahiago duten guztiei" eskaini die liburua Xabier Amurizak. Bizitza osoan zehar euskaren inguruko hausnarketa ugari egin ondoren, hizkuntzari antzeman dizkion hainbat hutsune eta premia jaso ditu lan honetan, baita zenbait aterabide proposatu ere.

